

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko urria

Aurkibidea

1. Aurreikuspen berriak
 2. Industria ekoizpena
 3. Inflazioa
 4. Enpresarien konfiantza
 5. Sentimendu ekonomikoa
 6. ELGEren aurreikuspenak
 7. Hilabeteko laburpena
- Eranskina

1. EAEko ekonomia %10,1 jaitsiko da 2020an.

2021eko susperraldia bizia izango da eta %8,9ra iritsiko da.

2. Industria ekoizpenak martxotik izan duen beherakada txikiena jaso zuen uztailean.

Urte arteko tasan, IPlak %12,4ko jaitsiera izan zuen.

3. KPIa -%0,4ra arte galgatu zen abuztuan argindarraren garestitzearen ondorioz.

Dagoeneko bost hilekoz jarraian merkatu dira kontsumoko prezioak.

4. Enpresen igurikimenak laugarren hiruhilekorako zertxobait hobetu dira.

Laboral kutxaren adierazlea 22,6tik 30,8ra igo da, eremu ez-korrean jarraituz.

5. Europako sentimendu ekonomikoaren susperraldia aurrera doa.

Eraikuntza hedatzeko eremuan dago jadanik eta kontsumitzailearen konfiantza baikortasunera hurbildu da.

6. Munduko ekonomiaren mailaz mailako susperraldi zalantzazkoa.

ELGEk gorantz berrikusi ditu 2020rako aurreikuspenak, bereziki AEBetakoak eta Txinakoak.

7. Hilabeteko laburpena.

Munduko ekonomiaren susperraldiak gorabeherak erakutsi ditzake.




EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %10,1 jaitsiko da 2020an

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 2020
-%10,1




COVID-19aren pandemiak gogor jo du munduko osasun eta ekonomia sistemetan. Hilekoak aurrera egin ahala, handitu egiten da birusaren eta ekonomiaren bilakaerari buruzko ziurgabetasuna, bai eta beheranzko arriskuak ere. Eskura dagoen koiunturako azken informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin du 2020-2021 aldirako EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa. Berrikuspen horren arabera, 2020an EAEko BPGA %10,1 uzkurtuko da, eta

2021ean hazkunde tasa %8,9an kokatuko da. 2020an, barne eskari pribatua izango da narriadura ekonomikoa gehien jasango duen agregatua. Produkzioaren beherakadak, pandemiari eusteko ezarritako murrizketek eta konfiantza galerak inoiz lortu ez diren maila negatiboetako tasak ekarriko dituzte. Jardueraren dinamismoa pixkanaka handituko da eta BPGaren hazkundea tasa positiboetan kokatuko da 2021ean.


AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Ekoizpen adar guztiek izango dute eragin negatiboa 2020an beren jarduera ekonomikoan. Orobat, 2021ean horiek guztiek balio erantsi gordinaren gehikuntzari ekarpen positiboa egingo dutela espero da. Industriak izango ditu tasarik altuenak, bai jaitsieran, bai susperraldian.

BPGaren uzkuertzeak eragin handia izango du enpleguan. Lanaldi osoko lanpostuei dagokienez, %8,9ko beherakada aurreikusten da 2020an. 2021ean, berriz, lanpostuen kopurua %7,9 haziko dela aurreikusten da. Landunei dagokienez, enpleguaren jaitsierak 30.000 pertsonari eragingo die aurretik, eta 15.000 pertsonari egingo die mesede datorren urtean, gutxi gorabehera. Langabezia tasa %11,2ra igoko da 2020an, batez beste. Langabeziak behera egingo du pixkanaka, 2021eko amaieran %10,1eko tasara iritsi arte.


ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.


INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA

Industria ekoizpenak martxotik izan duen beherakada txikiena jaso zuen uztailan

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA.
GUZTIRA

UZTAILAKO DATUA


-%12,4




EAEko industria ekoizpenak beste beherakada bat izan zuen, %12,4koa, joan den uztailan. Hala ere, jaitsiera hori martxotik izandako txikiena da, hila-bete hori barne, Eustatek asteazken honetan jakitera eman dituen datuen arabera. Hileroko datuei dagokienez, industriaren jarduerak %3,0 egin zuen gora ekainarekin alderatuta, urtaroko eragina zuzendu ondoren; 2020ko lehen zazpi hilabeteetako balantzea, berriz, %16,2ko uzkuertze metatua-rekin itxi zen.

Uztailan, industria sektore handi guztiek bilakae-ra negatiboak izan zituzten urte arteko tasan. Zehatzago esanda, kontsumoko ondasunek, oro har, %3,9ko beherakada izan zuten, bai kontsumo iraunkorrak (-%8,3), altzarien, etxeko tresnen edo produktu elektronikoen ekoizpena jasotzen baitu, bai kontsumo ez-iraunkorrak (-%2,9), besteak beste elikagaien fabrikazioa, prozesatzea eta kontserbazioa eta jantziak egitea biltzen baititu.

INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA.
KONTSUMO IRAUNKORREKO ONDASUNAK




INDUSTRIA PRIDUKZIOAREN INDIZEA.
KONTSUMO IRAGANKORREKO ONDASUNAK




Gainerako taldeek beherakada nabarmenagoak izan zituzten. Esate baterako, energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren hondoratzeak baldintzatuta (-%16,8), energiaren taldea %14,7 jaitsi zen. Ondoren, bitarteko ondasunak kokatu ziren, %12,6ko jaitsiera batekin, kasu honetan metalurgiaren eta produktu metalikoen sektoreek behera egin zutelako; sektore garrantzitsuenetako bat izan zen hori, eta %20,7 murriztu zen. Azkenik, ekipamendurako ondasunek %10,6 egin zuten behera; besteak beste, motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinak eta -materiala eta aeronautika eta ontzigitza.

Talde guztiek, energiarena izan ezik, hondoa jo zuten apirilean, pandemiaren puntu gorenean, eta ordutik susperraldi argia izan dute. Energia sektorea izan da joera horrekin bat egin duen azkena, ekainera arte behar izan baitu gora egingen hasteko. Bitxia bada ere, eta nahiz eta horiek guztiek balio negatiboetan jarraitzen duten, urtarritik uztaile bitarteko metatuan energia sektorea da tasa positiboetara (-%5,7) berriro heltzea gertu duena. Izan ere, jaitsieratik suspertzeko denbora gehiago behar izan arren, energiaren uzurtzea gainerako taldeena baino apalagoa izan zen.


INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. KONTSUMO ONDASUNAK




INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. ENERGIA ONDASUNAK



INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. BITARTEKO ONDASUNAK



INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA. EKIPAMENDURAKO ONDASUNAK




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

KPIa $-\%0,4$ ra arte galgatu zen abuztuan, argindarraren garestitzearen ondorioz

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Kontsumoko prezioen indizeak bi hamarren igo zuen urte arteko tasa abuztuan, $-\%0,4$ ra arte, uztaileko $-\%0,6$ aren aldean, argindarraren prezioaren igoerak eraginda. Bi hamarreneko gorakada horrekin, KPIa igoeretara itzuli zen, aurreko hilabeteen lau hamarren atzera egin ostean. Hala ere, azken datu horrekin inflazioak bost hilabete daramatza tasa negatiboetan.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,4	-0,4
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	0,3	0,2
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,2	0,0
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	0,1	0,0
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-3,7	-0,6
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	3,9	0,3
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-8,8	-0,9

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Azken hilabeteetan ez bezala, berrikuntza gisa, INEk azaldu du alarma egoera amaitu ondoren produktu guztien prezioak aurrez aurre jaso daitezkeela. Hala eta guztiz ere, Covid-19 ondasun eta zerbitzuen talde berezien indizeak, hilabete hauetan etxeetan gehien kontsumitzen diren produktuen bilakaera erakutsi dutenak, argitaratzen jarraitu du, alarma egoera amaitu ondoren egoera aztertu ahal izateko. Inflazioaren bi hamarreneko gorakadan ekarpen handiena egin zuten taldeen artean, etxebizitza nabarmentzen

da, beraren tasa puntu bat eta hiru hamarren igo zelako, $-\%2,4$ an kokatuz, lehenago ere aipatu den elektrizitatearen prezioen igoerak eraginda. Era berean, hotelek, kafetegiek eta jatetxeek bost hamarren egin zuten gora, $\%0,6$ ra arte, osatuen prezioek gora egin zutelako, eta garraioak hamarren bat egin zuen gora, erregaien prezioa garestitu zelako. Aitzitik, aurreko aldian bezala, aisialdia eta kultura izan zen eragin negatibo handiena izan zuen taldea, pakete turistikoaren igoera txikiagoaren ondorioz.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko uztaila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,4	-0,5	-0,2
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,5	2,2	1,2
Edari alkoholikoa eta tabakoa	0,5	0,5	3,6
Jantziak eta oinetakoak	0,9	1,0	-1,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-2,4	-2,7	-1,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,1	0,4	0,3
Osasuna	0,3	0,5	0,5
Garraioa	-4,1	-4,4	-3,2
Komunikazioak	-1,2	-1,2	-2,0
Aisia eta kultura	-2,8	-2,1	0,0
Hezkuntza	1,4	0,8	1,0
Jatetxeak eta hotelak	0,6	0,5	0,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,8	1,5	1,4

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Enpresen igurikimenak laugarren hiruhilekorako zertxobait hobetu dira

Laboral Kutxak laugarren hiruhilekorako enpresen igurikimenei buruzko inkestaren emaitzak argitaratu berri ditu. Aurreko datuak oso behera egin ondoren, enpresek ezkor jarraitzen dute etorkizunari begira, baina datuek apur bat gora egin dute. Zehazkiago adierazita, konfiantzaren indizea hirugarren hiruhilekoko 22,6tik laugarreneko 30,8ra igaro da, egoera normala litzatekeena (50) baino askoz beherago oraindik.


Atalka, inkestaturako enpresen %53,0k uste du laugarren hiruhilekoko fakturazioa baxuagoa izango dela, eta %13,6k soilik uste du hobera egingo duela. Era berean, jarduerari buruzko galderei dagokienez, %59,3k uste du okerrera egingo duela, eta %9,8k soilik uste du gora egingo duela. Bi aldagai horietan, %30ek baino gehixeagok uste du egoera ez dela aldatuko gaur egungoarekin alderatuta.

ENPRESARIEN KONFIANTZA.


INDIZEA

2020KO LAUGARREN HIRUHILEKOA


30,8




FAKTURAZIOA




JARDUERA




ESKAERAK




PREZIOAK



ERRENTAGARRITASUNA




LANGILEAK



Une ekonomikoaren bereizgarri den tonu ezkor horren barruan, eskaerei buruzko iritziak negatiboak dira berriz ere, baina aurreko hiruhilekoarekin alderatuta hobera egin du, 18,0tik 30,1era igaro baita. Beraz, eskaeren beharakada espero da, baina hirugarren hiruhilekoan baino txikiagoa.

Enpleguari dagokionez, %60,6k uste du plantillak mantendu egingo direla, baina %30,6k tamaina murrizteko asmoa du, eta %8,8k bakarrik uste du kontratazio berriak egingo dituela. Errentagarritasunik eza eta ziurgabetasun handia ikusita, inbertsioari buruzko erabakiak atzeratu egin dira. Inkestan, %44,2k uste dute inbertsioak behera egingo duela, eta %7,3k, berriz, gora egiteko asmoa dute. Enpresen ia erdiek inbertsio bolumenari eutsiko diote, aldaketarik gabe.

INBERTSIOA



Iturria: Laboral Kutxa.




EKONOMIA SENTIMENDUA

Europako sentimendu ekonomikoaren susperraldia aurrera doa

SENTIMENDU EKONOMIKOA.
EUROGUNEA

IRAILEKO DATUA


91,1




Irailean, Euroguneko konfiantza eta sentimendu ekonomiko indizeak, Europako Batzordeak egiten duenak, beste aurrerapauso bat eman zuen suspertzeko prozesuan, eta 91,1eko balioa izan zuen, oraindik azken hogeitazetako batez bestekoaren azpitik, 100 balioa hartzen baitu, baina 3,6 puntu gehiago abuztuko datua baino. Adierazlearen osagai guztien artean, eraikuntza baino ez dago bere batez besteko balioaren gainetik, baina kontsumitzailearen konfiantza eta

txikizkako merkataritza hazkunde eremura hurbiltzen ari dira. Zailtasunak, beraz, industrian eta, bereziki, zerbitzuetan daude. Bi sektoreetan hobekuntza nabari da aurreko hilabeteekin alderatuta, baina oraindik ibilbide luzea dute beren batez besteko balioei berriro heltzeko. Sentimendu ekonomikoarekin batera, enpleguaren igurikimene indizeak ere bilakaera ona izan du (91,8), baina beste hileko batzuk beharko ditu batez besteko historikoa lortzeko.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ALEMANIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. FRANTZIA




Bilakaera antzekoa da Euroguneko herrialdeen artean, baina nabarmentzekoa da Alemanian eta Frantzian. Lehen herrialdean, iraileko datua 95,5 izan zen, eraikuntza eta txikizkako merkataritza hedapen eremuan daudelarik. Bertako industria nabarmen hobetu da, baina zerbitzuek moteltzea iragarri dute abuztuarekin alderatuta. Frantzia, berriz, 96,6an dago jadanik, iraileko hobekuntza nabarmenari esker. Txikizkako merkataritza bakarrik dago eremu positiboan, baina zerbitzuak azkar doaz beren batez besteko baliorantz. Industria eta eraikuntza gelditu egin dira hilabete honetan.

Espainiaren kasua gainerako ekonomia handietatik bereizten da. Izan ere, 90 puntuetan erresistentzia aurkitu omen du eta uztailetik aurrera balio horretan jarraitzen du, aldaketa gutxirekin. Industriak hobera egiten jarraitzen du pixkanaka, baina gainerako atalak, zerbitzuak bereziki, oso urrun daude batez besteko balioetatik. Italiak, aldiz, nabarmen egin du gora 89,0ra arte, martxoko datua gaindituta. Eraikuntza eta kontsumitzailearen konfiantza suspertu egin dira, eta txikizkako merkataritza suspertzeaz dago. Zailtasunak daude industrian eta zerbitzuetan, baina azkar hobetzen ari dira.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ITALIA




SENTIMENDU EKONOMIKOA. ESPAINIA



Eurogunetik kanpo, badirudi Erresuma Batuak atzean utzi dituela zalantzak eta pixkanaka hazkunde eremurantz doala, irailean 83,0 puntu lortuta, datu nahiko baxua oraindik. Eskura ditugun datu guztiek erakusten dute oso alde handiak daudela egungo balioaren eta batez besteko historikoaren artean. Bereziki garrantzitsua da zerbitzuek eta txikizkako merkataritzak erakusten duten urruntzea, baina industria eta kontsumitzailearen konfiantza ere oso posizio negatiboetan daude.

SENTIMENDU EKONOMIKOA. ERRESUMA BATUA




Iturria: Europako Batzordea.

Munduko ekonomiaren mailaz mailako susperraldi zalantzazkoa

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2007 2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021


Aurreikuspen ekonomikoek ziurgabetasun handia dute COVID-19aren pandemiaren bilakaeraren eta horrek ekonomian eta gizartean duen eraginaren aurrean. ELGEren aurreikuspen berrien arabera, 2020an munduko ekonomiaren uzurtzea %4,5ekoa izango da, eta 2021ean %5,0 haziko da. Eszenategi berri horrek hobekuntza dakar 2020rako, ekainean argitaratutakoekin alderatuta. Goranzko berrikuspen hori bereziki handia da Txinarentzat eta AEBentzat. Euroaren eremuan ere, kopuru txikiagoan bada ere, aurreikuspenak gorantz zuzendu dira. Hala ere, 2021erako munduko hazkunde aurreikuspenak okertu egin dira.

ELGEREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Munduko ekonomia	2,6	-4,5	5,0	+1,5	-0,2
AEB	2,2	-3,8	4,0	+3,5	-0,1
Eurogunea	1,3	-7,9	5,1	+1,2	-1,4
Alemania	0,6	-5,4	4,6	+1,2	-1,2
Frantzia	1,5	-9,5	5,8	+1,9	-1,9
Italia	0,3	-10,5	5,4	+0,8	-2,3
Erresuma Batua	1,5	-10,1	7,6	+1,4	-1,4
Kanada	1,7	-5,8	4,0	+2,2	+0,1
Japonia	0,7	-5,8	1,5	+0,2	-0,6
Txina	6,1	1,8	8,0	+4,4	+1,2
India	4,2	-10,2	10,7	-6,5	+2,8
Brasil	1,1	-6,5	3,6	+0,9	-0,6


AEB-ETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




EUROGUNEKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




ELGEren proiektzio ekonomikoen arabera, gaur egungo koronabirusaren tokiko birsortzeak izango dira, eta puntu horietan ardaztutako neurri murriztaileak izango dituzte. Halaber, uste dute ez dela gaixotasunaren aurkako tratamendurik egongo 2021aren amaierara arte. Testuinguru horretan, 2021ean BPGaren mailak 2019aren amaieran zeudenen azpitik mantenduko dira, eta pandemiaren ondorioz epe luzerako kostuak izateko arrisku handia dago.

ELGEk azpimarratu du ziurgabetasuna mugatu behar dela eta eragile ekonomikoen konfiantza areagotu behar dela, egiturazko, diruzko eta zerga arloko politika eraginkorrekin. Halaber, merkataritza, inbertsio eta ekipamendu medikoko fluxuak bultzatzeko mundu mailako lankidetzaren alde egiten du.

TXINAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGE.



Munduko ekonomiaren susperraldiak gorabeherak erakutsi ditzake

Ekonomien susperraldia ez da lineala izango, eta, unean-unean, atzerapausoren bat ikusiko dugu. Hain zuzen ere, **pandemiaren bigarren olatua Europan zabaldu izanak geldiarazi egingo du hautematen hasia zen bilakaera positiboa**. Horren adibide ona da euroaren eremuan iraileko PMI indize konposatuaren datua, 50,1ean kokatu baita, eta maila horrek hazkunde erritmoa hutsala dela adierazten du, abuztuan 51,9 itxaropentsua izan ondoren. Atzerako pausu horren arrazoia zerbitzuetan dago. Izan ere, sektore hori 50,5 izatetik 47,5 kezkarri bat izatera igaro da. Aitzitik, manufakturen indizeak goranzko bideari jarraitu zion, eta 56,8an dago, hedapen nabarmena adierazten duen balioa delarik. Euroguneko bi herrialde handiek emaitza txarrago hori jaso dute, intentsitate desberdinekin bada ere. Hala, Alemania 54,4tik 53,7ra igaro da, zerbitzuak 49,1era jaitsi dira, eta manufakturen sektore indartsua 62,2ra iritsi da, 32 hilabetetan izan duen baliorik handiena baita. Bestalde, Frantzia 48,5era jaitsi da, zerbitzuak 47,5ean daudela, nahiz eta manufakturek eutsi egiten dioten (53,0).

Europako Batzordeak argitaratzen duen konfiantzaren eta sentimendu ekonomikoaren indizeak ere adierazten du **zailtasun nagusiak zerbitzuen sektorean daudela, eta gainontzeko osagaiak, berriz, edo hazten ari dira jadanik edo gutxi falta zaie hazten hasteko**. Zehazkiago, euroaren eremua 91,1 puntutan kokatu zen irailean, azken hamar urteetako batez besteko baliora iristeko hamar puntu baino gutxiagora (100). Eraikuntza maila positiboan dago eta kontsumitzailearen konfiantza nahiz txikizkako merkataritza hurbil daude. Hobekuntza orokorra da, Espainian izan ezik, 90eko maila gainditzeko erresistentziak aurkitzen baititu, hain zuzen ere, zerbitzuek bizi duten une txarragatik.

Beheranzko berrikuspenen etengabeko jarioaren ondoren, ELGEk munduko ekonomiari buruz egindako aurreikuspen berriaren arabera, **hazkunde globala - %4,5 izango da aurten, hau da, aurreko aurreikuspena baino 1,5 puntu handiagoa**. Aurreikuspenen eguneratze horrek nabarmen hobetu du erakunde horrek Estatu Batuei eta Txinari buruz duen ikuspegia, eta haren goranzko berrikuspenak 3,5 eta 4,4 puntukoak dira, hurrenez hurren. Euroaren eremuarena 1,2 puntu hobetu du, baina oraindik %7,9 jaitsiko da. Aitzitik, 2021eko ikuspegia negatiboagoa da orain, eta erreboteak indarra galtzen du eremu guztietan.

EAEko ekonomiari dagokionez, bigarren hiruhilekoko kontu ekonomikoak ezagutu dira eta baieztatu egin da hilabete horietan bizi izan zen une txarra: BPGa %19,5 jaitsi da urtetik urtera, aurrerapenean iragarritakoa baino zertxobait gutxiago bada ere. **Aurreikuspenen eguneratzearen arabera, aurtengo batez besteko jaitsiera %10,1 izango da eta hurrengo urtean susperraldi handia lortuko da (%8,9)**. Koiunturazko datuek erakusten dutenez, amaitu berri den hirugarren hiruhilekoan ekonomia suspertu egin da, eta, nahiz eta aldagai gehienek urte arteko tasa negatiboak izaten jarraitzen duten, balio horiek gero eta txikiagoak dira. Adibidez, industria ekoizpena apirilean %38,8 jaitsi zen, eta uztailan, berriz, %12,4. Era berean, atzerriar bidalitako ondasunen esportazioek -%53,2ko balioa izan zuten apirilean, baina beherakada leunduz joan dira uztailera -%13,3ra arte. Gainera, zenbait jardueratan urte arteko lehen tasa positiboak ikusten hasi dira. Adibidez, hipotekak %38,4 igo ziren uztailan, eta saltoki handietan eta elikadura kateetan egindako salmentak %3,9 igo ziren abuztuan, urte batetik bestera, eta enpleguak gora egin zuen (%1,0).

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	II
BPG	3,1	2,2	2,3	2,1	2,2	-3,2	-19,5
Barneko azken kontsumoa	2,6	1,9	1,9	1,8	1,6	-3,0	-15,4
Familien kontsumoa	3,0	1,8	1,9	1,6	1,5	-4,8	-20,3
Administrazioaren kontsumoa	1,2	2,2	2,2	2,4	2,3	4,1	3,0
Kapital eraketa gordina	4,9	3,3	3,2	2,7	2,7	-3,6	-23,0
Barne eskaria	3,2	2,2	2,2	2,0	1,9	-3,1	-17,2
Esportazioak	2,7	0,4	2,7	-0,6	1,4	-7,5	-30,1
Inportazioak	2,8	0,4	2,6	-0,6	1,0	-7,2	-26,4
Lehen arloa	1,7	3,2	3,3	2,8	5,9	3,5	-6,1
Industria eta energia	2,0	1,3	1,2	1,2	2,2	-3,6	-26,7
Eraikuntza	4,0	3,4	3,5	3,2	2,1	-2,7	-17,9
Zerbitzuak	3,1	2,5	2,5	2,4	2,1	-2,8	-17,5
Balio erantsi gordina	2,9	2,3	2,3	2,1	2,2	-3,0	-19,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,2	2,2	1,8	2,3	-5,1	-18,4
Enplegua	2,3	1,5	1,6	1,5	1,2	-2,8	-17,2

IRAILEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020		2020	2021				2021
	III	IV		I	II	III	IV	
BPG	-11,9	-5,8	-10,1	0,6	21,6	11,4	4,3	8,9
Barneko azken kontsumoa	-8,9	-4,3	-7,9	0,6	17,5	8,8	3,8	7,4
Familien kontsumoa	-12,0	-6,1	-10,8	0,3	22,6	10,8	4,2	8,9
Administrazioaren kontsumoa	2,9	2,5	3,1	1,0	1,6	1,5	1,7	1,5
Kapital eraketa gordina	-14,5	-6,0	-11,7	0,0	24,9	12,9	2,8	9,3
Barne eskariaren ekarpena	-10,9	-5,0	-9,3	0,5	20,3	10,4	3,8	8,2
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,0	-0,8	-0,8	0,1	1,3	1,0	0,5	0,7
Lehen arloa	-7,7	-8,5	-4,8	1,6	11,8	8,8	10,3	8,0
Industria	-16,9	-8,7	-14,0	-2,1	28,9	14,9	4,9	10,5
Eraikuntza	-10,1	-7,5	-9,6	0,5	19,3	8,1	6,3	8,2
Zerbitzuak	-10,4	-5,1	-9,0	1,0	19,9	10,5	4,3	8,5
Balio erantsi gordina	-11,9	-6,2	-10,2	0,3	21,8	11,4	4,6	8,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,5	-2,4	-9,4	3,3	20,2	11,8	1,7	8,8
Lanaldi osoko lanpostuak	-9,2	-6,3	-8,9	-1,1	18,2	8,6	5,9	7,9
Landunak (BJA)	-5,5	-4,0	-3,2	-3,0	2,4	3,8	3,6	1,7

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
Hispalink (BEGren aldak.)	-10,6	5,7	Laboral Kutxa	-8,9	7,0
BBVA	-10,0	6,7	Afi	-7,5	—
CEPREDE	-9,3	11,0			

ESTADÍSTICA ERANSKINA.ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	II
BPG	2,4	2,0	2,1	1,8	1,7	-4,2	-21,5
Kontsumo pribatua	1,8	0,9	0,3	1,1	1,0	-6,2	-25,2
Kontsumo publikoa	2,6	2,3	2,4	2,2	2,6	3,7	3,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,1	2,7	1,3	2,8	0,9	-5,1	-25,8
- Aktibo finko materialak	7,6	2,7	1,2	2,6	0,1	-6,9	-29,7
- Eraikuntzan	9,3	1,6	2,7	0,9	-2,2	-7,0	-27,7
- Ekipamendu ondasunetan	5,4	4,4	-0,9	5,4	3,6	-7,3	-34,2
- Jabetza intelektualaren produktuak	-0,7	2,6	2,1	3,7	5,0	4,5	-5,8
Nazio eskaria (ekarpena)	3,0	1,4	0,9	1,5	1,0	-3,9	-18,8
Esportazioak	2,3	2,3	3,2	2,7	2,1	-5,6	-38,1
Inportazioak	4,2	0,7	-0,1	2,0	0,3	-5,4	-33,5

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-12,2	7,7	IEE	-12,0	6,0
Axesor	-11,8	7,0	Intermoney	-12,4	7,2
BBVA	-11,5	7,0	Mapfre Economics	-12,1	6,8
Bankia	-13,0	6,0	Repsol	-13,0	5,7
CaixaBank	-14,0	10,0	Santander	-10,1	7,5
Cámara de Comercio España	-13,0	8,6	Ygroup Companies	-13,0	6,0
Cemex	-12,0	6,0	Universidad Loyola Andalucía	-11,5	7,1
CEEM-URJC	-11,2	8,5	Consenso (media)	-12,0	7,3
CEPREDE-UAM	-10,2	10,1	Gobierno (04-2020)	-9,2	6,8
CEOE	-11,5	7,0	Banco España (09-2020)	-10,5/-12,6	7,3/4,1
Equipo Económico (Ee)	-12,0	6,8	Comisión Europea (07-2020)	-10,9	7,1
FUNCAS	-13,0	7,9	FMI (06-2020)	-12,8	6,3
ICAE-UCM	-11,5	7,0	Consensus Forecast (09-2020)	-12,2	7,1

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, Bankia, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	II
AEB	3,0	2,2	2,0	2,1	2,3	0,3	-9,1
Txina	6,6	—	6,2	6,0	6,0	-6,8	3,2
Japonia	0,3	0,7	0,9	1,7	-0,7	-1,9	-10,1
Kanada	2,0	1,7	2,0	1,6	1,5	-0,9	-13,0
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,5	1,6	1,2	-2,7	-13,9
Eurogunea	1,8	1,3	1,2	1,4	1,0	-3,2	-14,7
Alemania	1,3	0,6	0,1	0,8	0,4	-2,2	-11,3
Frantzia	1,8	1,5	1,8	1,6	0,8	-5,7	-18,9
Erresuma Batua	1,3	1,5	1,4	1,3	1,1	-1,7	-21,7
Italia	0,8	0,3	0,4	0,5	0,1	-5,6	-17,7
Herbehereak	2,4	1,7	1,5	1,6	1,7	-0,4	-9,2

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020ko IRAILA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-4,4	3,8	1,1	1,9	8,7	7,0
Japonia	-5,6	2,6	-0,1	0,1	3,0	3,2
Kanada	-6,0	5,2	0,7	1,7	9,6	7,9
Europar Batasuna	-7,6	5,2	0,6	1,2	—	—
Eurogunea	-7,7	5,5	0,4	1,0	8,5	9,2
Alemania	-5,7	4,6	0,5	1,5	6,0	5,9
Frantzia	-9,5	6,9	0,5	1,0	9,1	10,0
Erresuma Batua	-10,1	6,5	0,8	1,5	6,1	7,4
Italia	-9,9	5,6	0,0	0,5	10,1	11,5
Espainia	-12,2	7,1	-0,2	0,7	—	—
Herbehereak	-5,0	3,3	1,3	1,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.